



4 IKASTAROA
Euskal Jantzi
tradizionalak egiten
ikasteko aukera

Urte batzuk dira Ttakun kultur elkarteak euskal jantzigintzan oinarritutako ikastaroa antolatzen duela. Ione Artolak gidatuta herritarrek euskal jantziak egiten ikasteko aukera izango dute. Bi ikastaro antolatu dira, bata urrian eta bestea azaroan. Talde bakoitzean gehienez 15 lagun hartuko dira eta antolatzaileek ahalik eta lasterren izena emateko gomendioa luzatzen dute. Honakoa Ttakuneko bulegoan egin daiteke gaurtik.



5 ERREPORTAJEA
Odol email
berriak behar
dira

47 urte dira herriko odol emailen taldea sortu zela herrian. Urte guzti hauetan email kopuruak iguera eta jaitsierak izan ditu. Azken urteetan gurean 60 bat lagun dira maiztasunez odola ematera joaten direnak baina kopuru hau igo nahi lukete. Garai batean 70 zirela azpimarratzen du Joxe Usabiaga eskualdeko koordinatzaileak. Gipuzkoa mailan beherakada nabaritu eta email berriak eskatzen dira.

Mugikortasun Astearen baitan hainbat ekintza antolatu ditu udalak aurten ere. Lehenengoa atzo burututakoa izan zen. Kale Nagusia itxi egin zen bertan joko ezberdinak egin ahal izateko. Denetarik izan zuten haur zein gaztetxoek. Segway ibilbidea, bide hezkuntza zirkuitua eta beste hainbat jolas. Gaurkoan bizikleten eguna izango da eta Okendon azoka zein jokoak izango dira berriz ere protagonistak.

Azken urteetako hitzordua izan arren, beste itxura bat hartzen du Kale Nagusiak Mugikortasun Astea ospatzearekin batera. Honakoa, trafikoarentzat itxi egiten da eta joko eta jolasek hartzen dute lekua.

Haur zein gaztetxoentzako ekintzak antolatu ziren atzokoan. Eguraldi goibelari aurre eginez, asko izan ziren hurbildu zirenak eta ederki pasa zuten.

Begiraleen laguntzaz, bide hezkuntza zirkuitua egiteko aukera izan zen. Honetan bizikleta gainean zirkuitua osatu behar zuten gaztetxoek kaleetako ohiko bide seinaleei so eginez. Horretaz gain, futboleko aritzeko aukera izan zuten, herri kirolean trebatu edota segway gainean ibilbidea egiteko.

Azken honek urtero izaten du arrakasta eta hala izan zen atzokoan ere. Ilara egin zuten hauen gainean ibili nahi zuten umeek. Txikienek hori bai,



Ederki pasa zuten gaztetxoek herri joko ezberdinak probatzen begiraleen laguntzarekin.

laguntzaile bat eraman behar izan zuten alboan. Horrela izanda, euriari aurre eginez pasa zuten arratsaldea herriko ez ohiko jolasleku bilakaturako Kale Nagusian.

Bizikletaren eguna

Gaurkoan bizikletek hartuko dute Okendo plaza. Iaz bezala, bigarren eskuko bizikleten azoka egingo da arratsaldean zehar. Honetan herritarrek aukera izango dute erabiltzen ez dituzten bizikletak, patinak, patineteak zein osagarriak saltzeko. Horretarako aurrez eraman beharko dira produktuak, 15:00etatik aurrera Okendora.

16:30ean abiatuko da 6 eta 11 urte bitarteko haurrentzako bizikleta martxa eta jarraian, 17:00ak aldera, zaharragoen txanda izango da. Hauek ibilbide luzeagoa egingo dute herriko bidegorri saretik.

Bizikleta gainean txangoa egitera animatzen ez direnek,



Segway zirkuituak ohi bezala arrakasta handia izan zuen eta ilarak ere egin ziren.

aukera izango dute jolas ezberdinekin gozatzeko.

Astlehenean ikastaroa

Bizikletarekin hirian ibiltzen ikasteko ikastaroa egingo da 18:30ean astlehenean Okendon. Honen helburua hirian aurki daitezkeen oztopoen

aurrean beldurra galdu eta hainbat jarraibide ikastea da. Parte hartzeko, aurrez izena ematea beharrezkoa da eta oraindik lekua dagoenez, antolatzaileek herritarrek animatzen dituzte. Izena emateko, 943 670 249 zenbakira deitu behar da.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua

Etxeko txorizoa

Txistorra



BERTAKO FABRIKAZIOA

Solomoa baratxuritan

Tripakiak- Saltxitxak

Basurde burua

Baserri pateia

Neure kabuz



Asier Odriozola

Hego haizea

Ezjakin bezela agertzea ez zait asko ere ajola. Horregatik aitortzera noa ez dakidala hego haizea Euskal Herrian ezagutzen dugun haize mota den ala gurean bezainbesteko mira eta esames sortzen duen beste inon. Ezjakintasunak gehienetan ematen duen alegantzia eta ardura ezarekin, beraz, hausnarketaxo bat ilea banatzeaz gainera hamaika lagunen burualdeak nahasten dituen haizearen bueltan.

Ehiztarien gozamenerako usoak ekartzen ditu hego haizeak eta psikiatren larritasunerako, pazienteak kontsultetara. Bizikletazaleak estu ibiltzen dira orekari eutsi ezinik eta bestela ere ibiltzeko nahikoa lan izaten duen edadetuak are eta zailtasun handiagoak ditu pausoa emateko. Hegoak hego handi xamarreko txoriei egiten die mesede, ahalegin handirik gabe doazelako batetik bestera. Batzuk gustuko dute tenperatura epelak luzatzen dituelako udazkenean, negua atzendum baina kopuru berean gorroto dute beste askok, giro ustelaren gorputzaldia jartzen dielako.

Honekin guztiarekin gauza xume bat esan nahi dut: egunotan gure artera itzuli den haizea oso dugula gurea eta hala jasota daudela Justo Mokoroaren atso-titz liburu mardulean. Han agertzen dira, hego-haize, ero-haize, erdaldun-haize, hego-haize goxo eta beste hamaika erreferentzia eguraldi gizon eta emakumeak oso urduri jartzen dituen aroari. Ez diogu antzik hartzen eta gizatiarrak ez gara eroso sentitzen kontrolatzen ez dugunarekin. Horregatik gustatzen zait txoro haize hau!

Zorion agurrak



Imanol

Zorionak guraso, Richard, Pablo eta Maiteren partetik.



Miren eta Nahia

Zorionak sorgintxoak!! Muxu pila bat aitatzxo eta amatxoren partez!!



Unax

Zorionak! Eskerrik asko 6 urte hauetan eman diguzun maitasun guztiagatik! Aitatzxo, amatxo, Oier eta Maddi.



Nahia, Pili eta Iñaki

Zorionak hirukote Ttakuneko lankideen partetik!! Ongi pasa zuen urtebetetze egunetan. Afaria zuen kontu!! Eta kontuz karaokean!!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

- 37m2ko lokala alokatzen dut Basaundin. garaje edo biltegi bezala erabili daiteke eta txokoa ere badu. 943 360 042
- Alokairuan etxea hartuko nuke herrian, bi logela eta 500 euro inguruan. 673 381 470

Lan-eskaintza

- Pertsona bat behar da gizon heldu bati laguntzeko eta etxeko lanak egiteko. Astelehene-tik larunbatera, lau ordu egunean. Kontratoarekin. Tel.: 615 734 794
- Sukaldaria jornada osora eta asteburuetarako zerbitzaria behar dira Lasarte-Oriako taberna batean. Tel.: 618 639 054

Lan-eskaria

- Neska gazte euskaldun bat haurrak zaintze-

ko prest eskaintzen da. Tel. 616 932 038 (Ene-ritz)

- Gizona eskaintzen da eskutitzak edo publizitate banatzeko. 943 364 527

• Etxeko lanak egin eta pertsona adinduek edo haurrak zaintzeko emakumea eskaintzen da. Interna, externa edo orduka. 676 188 411

• Emakume arduratsu eta euskaldunak umeak edo adineko pertsonak zaintzen lan egingo luke. Esperientziarekin 2 arloetan. Tel.: 666 382 688 Arantxa

Bestelakoak

- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068
- California furgonetaren abantzea salgai. 686 245 146

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Adrian Pozo Segura, irailaren 8an.



Heriotzak

- Jose Miguel Agirre Irureta, irailaren 13an, 77 urte zituela.
- Jose Urruzola Aristimuño, irailaren 10ean, 87 urte zituela.
- Catalina Romero Romero, abuztuaren 17an, 95 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 18	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Larunbata, 19	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 20	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astelehena, 21	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteartea, 22	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteazkena, 23	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Osteguna, 24	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero

Echeveste Elosegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez.
txintxarri@txintxarri.info
publizitatea@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

GIZARTEA

Michelin enpresan lan hitzarmena atzeratzen

LAB sindikatua hitzarmen on baten alde agertu da



Michelingo langile batzordeko kideak hitzarmen on baten alde mobilizazioak egiten hasi dira.

LAB SAIL SINDIKALA

Lasarte-Oriako Michelin enpresako langile batzordea Zentro arteko batzordetik atera zen apirilean. Duela bost hilabetetik hona, batzordea lan hitzarmena negoziatzen ari da zuzenean zuzendaritzarekin. LAB sindikatua prentsa ohar bitartez, zuzendaritzaren jarrera eta honek aurkeztutako baldintzak salatu nahi izan du.

TXINTXARRI

lan hitzarmena adostea ez da lan erraza izaten enpresetan. Negoziaketa luzeak eta gogorrak izaten dira. Eta Lasarte-Oriako Michelin enpresan negoziaketak luzera joko duela dirudi.

Duela bost hilabete, Lasarte-Oriako langile batzordea Zentro arteko batzordetik atera ostean, enpresako zuzendaritzarekin hasi zen lan hitzarmen berria negoziatzen.

Hilabete hauetan, bi aldeek haien baldintzak eta

eskakizunak jarri dituzte mahai gainean, baina oraindik ez da akordiorik lortu.

LABen salaketa

Michelingo LAB sail sindikalak, Michelingo zuzendaritzak negoziazioan duen jarrera salatu du.

"Negoziaketak hasi zirenetik 5 hilabete igaro direnean zuzendaritzak mahai gainean jartzen dituen baldintzak langileen lan egoera okertzeraz datoz," adierazi du sail sindikalak.

Izan ere, LABek jakitera eman duenez, KPlarekin lotura galduko duen soldata

igoera, lanaldiaren malgutasun itzela edo soldaten balio eskala bikoitzak baitira aurkeztutako baldintzetako batzuk.

Honetaz gain, lantokiaren etorkizunak eskatzen duen plantilla berrikuntzarik ez du aurreikusten eta euskarari ez dio lekuri egiten.

Mobilizazioak

Hori dela eta, LAB atal sindikalaren ustez, "bada garaia langileek beharretara egokitu diren negoziazioei heltzeko".

Eta hori lortzeko bidean Michelingo langileak mobilizazioak egiten hasi dira, oraingoz enpresa aurrealdean biltzen hasi dira, baina ekin-tza gehiago ere egingo dituztela adierazi dute.

LABen iritziz, "bide horretan sakondu beharrean gara, hori bait da enpresa zuzendaritzak uzten digun bide bakarra".

Lasarte-Orian etxegabetzerik ez

Lasarte-Oriako Udabatzarrek Lasarte-Oria etxegabetzerik gabeko udalerrizate adostu zuen aho batez irailaren 8an egin zen ohiko Udabatzarrean.

Kaleratzeak STOP taldearen eskaerari erantzunez etxegabetzeri buruzko mozioa aurkeztu zen batzarrean Bozeramaileen batzarrean onartu ostean eta alderdi guztietako zinegotziak bat etorri ziren hau onestean.

Baliabideak

Era honetara, Lasarte-Oriako udalak herrian egon daitezkeen etxebizitzatik kaleratzeak eta irtenarazteak

geldiarazteko eta, behar izanez gero, bizileku alternatibo bat bermatzeko bere esku dituen baliabide eta neurri guztiak hartzeraz konprometitzen da.

Era berean, entitate finantzarioetara jotzeko konpromisoa ere hartzen du, fede oneko zordunen etxegabetzeak geldiarazteko eta, gainera, hauek dituzten etxebizitza hutsen stocka alokairu sozialeko programa publikoen zerbitzura jar dezaten eskatzeko.

Hau guztiaz gain, Udalak etxegabetzea ekar dezaketen kasuen berri emateko eskatuko die epaitegi eskudunei.

Honen bidez, arrisku-egoerako kolektiboak detektatu eta zerbitzu sozialeko prebentiboki jardun ahalko baitute.

Etxegabetzea ekidin

Bestalde, Lasarte-Oriako Udalak jakitera eman duenez, Jesus Zaballos alkatea ekainean Bankinterrekin bitartekotza egin du Lasarte-Oriako familia baten etxegabetzea ekiditeko.

Bitartekotzari esker, etxegabetze eskaera bertan behera utzi zuen bankuak eta pagamenduen baldintzak birnegoziatu ahal izan zituen familiak.

KULTUR KALE

Psicoacoustic-en kontzertua bertan behera

Psicoacoustic herriko taldeak The Beatles taldearen omenez 'Help' kontzertua eskaini behar zuen larunbatean, Isla Plazan, baina talde kide baten arazo familiarak direla eta, bertan behera utzi behar izan dute emanaldia.

Bigarren aldia da kontzertu hau atzeratzen dena. Uztailaren 18an, Kultur Kale zikloari hasiera eman behar zion herriko taldeak, baina eguraldi iragarpen txarragatik bertan behera geratu zen.

Oraingoan, zikloko antolakuntzak ez du zehaztu emanaldia beste data batean eskaini ahalko den.

EUSKARA

Muntteri-AEKn matrikula garaia

Muntteri-AEK euskaltegiak urriaren 1ean hasiko du ikasturtea eta horregatik, matrikula epea irekia du.

Euskalduntzeko maila guztietako ikastaroak edo hizkuntza eskakizunak eta HABEren azterketak prestatzeko saioak eskaintzen ditu euskaltegiak.

Ikastaroren batean izena eman nahi dutenek bulegora (Geltoki Kalea, 17) joan daitezke 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Telefono bat ere jarri du Muntteri-AEKk herritarren eskura: 943 372 863. Izena emateko azken eguna irailaren 30a izango da.

BIYAK BAT

Irteera Añanako Kuadrillara

Ikasturte honetako, lehen txangoa antolatu du Biyak Bat elkarteak. Irailaren 24an, 'Añana, gatzaren lurraldea' irteera egingo dute. Honetan Añanako kuadrilako hainbat leku ezagutuko dituzte, hala nola, Añanako gesaltza edo Valdegobiako eremua.

Elkarteko kideek jakin arazi dutenez, plaza mugatuak dira eta dagoeneko gutxi geratzen dira.

Interesa dutenek egoitzako bulegoan inskribatu behar dira goizeko 10:30etik 12:30era. Biyak Bat elkarteko bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, 40 euro.

POLITIKA

Jesus Zaballosek legebiltzarra utzi du

Lasarte-Oriako alkatea, Jesus Zaballosek, astelehenean aurkeztu zuen legebiltzarkide-karguaren uko-agiria udaletik jakitera eman dutenez.

Udaletik bidalitako oharrean esaten denez, "lasarteoriatarrekin hartu zuen konpromisoaren arabera, eta ekainaren 13an alkate-kargua hartzean berretsi zuen moduan, Jesus Zaballosek Gasteizko Legebiltzarrean hiru urtez bete duen eserlekuaren uko-agiria aurkeztu du". Horrela alkate gisa dituen erantzukizunetan dedikazio osoz aritzeko aukera izango duela azpimarratu nahi izan dute.

POLITIKA

Atxilo bat droga-trafikoagatik

Astelehenean, arratsaldeko zortzirak inguru zirela, herritarren segurtasuneko lanak egiten ari ziren ertzain batzuek gizon bat identifikatu zuten Lasarte-Oriako taberna batetik gertu. Hernaniko ertzain-etxeke agenteek 54 urteko gizona atxilotu zuten kokainaz betetako hainbat pakete gainean eramateagatik.

Ertzaintzak jakitera eman duenez, Hernaniko ertzain-etxearen ikerketen arabera, inguru horretan egiten den substantzia estupefazianteen trafikoarekin lotutako gertakariekin zerikusia izan dezake atxilotuak.

Susmagarriari beharrezko dokumentazioa eskatu ondoren, ertzainek egiaztatu zuten metalezko bi hodi eta horien barruan hauts zuriz, kokaina ustez, betetako hainbat pakete zituela.

Horretaz gain, diru kopuru handia zeraman gainean. Horregatik, beharrezko egiaztapenak egin ondoren, atxilotu egin zuten osasun publikoaren aurkako delitu baten ustezko egile gisa. Ustezko trafikatzaila ertzain-etxera eraman zuten atxilotuta, beharrezko izapideak egin eta epailearen esku jartzeko.



Harrera ederra du euskal jantzi tradizionalaren ikastaroak.



Emakumeen Zentroan egingo dira ikastaroak, bertan baliabide teknikoak baitaude.



Haur edo helduentzat jantziak egin daitezke ikastaroan.



Euskal jantzi tradizionala kalera ateratzeko garaiak datoz, Euskal Jaia, Santa Tomas edo Eguberriak.

Euskal jantziak puntadaz puntada

Urrian eta azaroan ikastaroak antolatu dira

Euskal Jaiak, Santo Tomas eguna, Gabon bezpera,... hainbat dira euskal jantzi tradizionala jantzeko aukera ematen duten datak. Kolore bakarra edo mila kolorekoak, marra, lore edo puntudunak era guztietako jantziak ikusi daitezke kalean egun horietan. **Batzuk erosiak dira eta besteak etxean egindakoak. Azken hauetan egon zaitezke zu, izan ere, Ttakun kultur elkartearen eskutik, zure jantzi propioa egin dezakezu.**

Gona, atorra, txalekoa, gerruntzea, pololoak, zapiak, kaikua... emakume edo gizonen euskal jantzi tradizionalak hainbat pieza ditu eta eskualdearen arabera aldaera ezberdinak izan ditzakete. Ttakun Kultur Elkarteak pieza hauek guztiak egiten ikasteko aukera eskaintzen du urria eta azaroan Emakumeen Zentroan antolatuko diren euskal jantzi tradizionalen ikastaroerik esker.

Saioak

Ione Artola jostunaren lagun-

tzaz neurriak hartu, oihalak moztu edo puntadak nola eman, pauso ezberdinak ikasiko dituzte interesatuek norberaren edo familia kideen euskal jantzi tradizionala osatzeko.

Bi ikastaro antolatu dira, bata urrian eta bestea azaroan. Saioak astearte eta ostegun guztietan, arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara izango dira Emakumeen zentroan.

Bertan baliabide teknikoak izango dira, hau da, joste makinak eskura izango dituzte ikasleek.

Izena ematea

Jantzi tradizionala egiteko irrika eta gogoia dutenek, Ttakun Kultur Elkartearen edo 943 371 448 telefono zenbakian eman behar dute izena.

Ikastaroen balioa 22 euro-tako da Ttakunen bazkideentzat; bazkide ez direnek, 25 euro ordaindu behar dituzte. Ordainketa izena emateko egunean bertan egingo da.

Antolatzaileek gogorarazi nahi dute prezioan ez dela materialik sartzen, hau da, egin nahi den jantziaren ideia eta materiala bakoitzak eraman behar dituela.

Plaza mugatuak izango dira, 15 pertsona gehienez.

Gauzak honela, Ttakun kultur elkarteko arduradunek lagun berriak ezagutu eta gainera, hau guztia euskaraz egiteko aukera eskaintzen duen ikastaro honetan parte hartze-ko aukera luzatu nahi diete herritarrei, bai emakume, baita gizonei ere.

Stock azoka egingo dute Aterpeako hainbat dendek irailaren 26an

Honezkeroklasiko bilakatu da Aterpea merkataritza elkarteak urtero antolatzen duen stock azoka. Berrikuntzaren bat edo beste badakar ordea aurten: Produktu eta postu guztiak gune bakar batean batu beharrean, bere lokalean prestatuko du azoka denda bakoitzak. Ekimenaren egunean karpa bereizgarri bat edukiko du horietako bakoitzak, herritarrek jakin dezaten zeintzuk diren parte-hartzaileak.

Datorren asteko larunbatean, irailaren 26an egingo dute stock azoka.

Herritarrek egun osoan zehar gerturatu ahalko dira

10 denda horietara. Josema sarraila-denda, Urruzola mertzeria, Santana informatica, Alda osagarriak, Alba moda, Akene zapata-denda, Aritza mertzeria, Iturbe zapata-denda, Urruzola mertzeria eta Abreu bazarra izango dira parte-hartzaileak.

Ramon Ormazabal Aterpeko kideak atzo esan zuen herriko merkataritza sustatzeko helburuz prestatu dutela ekimena.

Jesus Zaballos alkateak adierazi zuen Udalak babes osoa ematen diola ekimenari, eta datozen urteetan denda gehiagok parte-hartzea espero duela.



Aterpea merkataritza elkarteko eta Lasarte-Oriako Udaleko hainbat ordezkari, atzo goizeko aurkezpen prentsaurrekoan.

Odol emaile berrien bila

Odol emari kopuru altuak mantentzeko gazteen beharra du Odol emaileen elkarteak

Gipuzkoako odol emaileen elkarteak 50 urte bete ditu aurten; Lasarte-Oriako taldea, berriz, duela 47 urte hasi zen lanean. Euskal Herriko odol emari kopurua altua da; gure herrian batz bestea, 60 bat egiten dira hileko azken astelehenean elkarteko kideek duten hitzorduan. Kopuru hauek mantendu edo hobetu nahiko lituzke elkarteak. Joxe Usabiaga Oria-Beheko eskualdeko eta Lasarte-Oriako arduradunarekin izan gara elkarte eta emariei buruz gehiago jakiteko.

Euskal Herrian urtean 100.000 odol emari egiten dira eta ohiko 60.000 eta 70.000 odol emaile daude Osakidetzako Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak aste honetan eskainitako datuen arabera.

Lasarte-Orian hilabeteko azken astelehenean biltzen dira odol emaileak eta Joxe Usabiaga eskualdeko eta herriko Odol-emaileen elkarteko arduradunaren arabera, "egunean 60 bat emari biltzen dira, baina garai batean 70 bat odol emate ematen ziren."

Izan ere, odol emaileen adina gora doa eta 20 eta 30 urte tartean odol emaileak ez dira oso fidelak.

Joxe Usabiagak aipatu digunez, Lasarte-Orian adin guztietako jendea dago, 22 edo 24 urtetatik hasi eta 65 urte bitartekoa. Baina pertson adinduen kopurua behera egiten ari da eta emariak mantentzeko jende berria behar da, "gazte jendea."

Besteei lagundu

Joxek azpimarratzen duenez, odol ematean ebakuntza edo gaixotasun larri bat dutenei laguntzeko balio du. "Emaileentzat pauso txiki bat da, baina mesede handia da behar dutenentzat".

"Odol bilketa herrietan, erakundeetan, enpresetan edo

unibertsitateetan egiten dugu, baita Donostian Koldo Mitxelena liburutegi atzean, Sanchez Toca kalean dugun egoitzan ere. Lasarte-Orian hilabeteko azken astelehenean egiten da," azaldu du.

Odol emateko baldintzak

Odol emaile izateko baldintza batzuk bete behar direla aipatu ditu eta gehienek betetzen ditugula azpimarratzen du. Hauek dira:

- Adina: 18 eta 65 urte bitartean.
- Pisu: 50 kg-tik gora.
- Tentsio diastolikoa (baxua): 50 mmHg eta 100 mmHg artean.
- Tentsio sistolikoa (altua): 100 mmHg eta 180 mmHg artean.
- Pulsua: Erregularra eta 50 eta 110 pulsatzio bitartean.
- Gizonen Hemoglobina-kopurua: 135 Gr-tik gora/litroko.
- Emakumeen Hemoglobina-kopurua: 125 Gr-tik gora/litroko.
- Baraurik ez da odolik eman behar.
- Osasunez normal egotea.
- Hepatitis edo HIES kutsatzea errazten duten arrisku-jokabiderik ez izatea.
- Azken urtean paludismo edo txagak izan diren gune endemikoetara bidaiatu ez izana.



Lasarte-Oriako Osasun zentroan hilabetero izaten dira elkarteko kideak. Bertan 60 bat herritarrek ematen dute odola.

Hala ere, odola eman aurretik, talde medikuak historia bat egiten du, baita miaketa bat ere, odola emateko aukerarik dagoen ikusteko.

Izan ere, pletora-sintomak, egoera fisiko txarra, ahultasun edo desnutrizio-egoera, anemia, ikerizia, zianosia, disnea, adimen-ezegonkortasuna edo alkohol, droga edo beste produktu batzuk kontsumitzeagatik intoxikazio-sintomak dituzten guztiak baztertuta geratzen baitira.

Joxe Usabiagak aipatu digunez, gero eta zorrotzagoak dira betebeharrak. "Lehen 50 baino gehiago eta esate baterako, tentsioa zaintzeko medikamenturen bat hartzen zuen pertsonak odola eman zezakeen. Egun pertsona horrek ezingo luke odolik eman."

Emari kopuruari dagokionez, urtean zehar gizonak 4 aldiz eman dezakete eta emakumeek 3 aldiz. Odol-emaldien arteko gutxieneko epeak 2 hilabetekoa izan behar du.

Emanaldia eta azterketak

Usabiagak aipatu legez, odol

ematea pauso txikia da. Odol emaria betetzeko 10 minutu eskas behar dira eta emanaldi bakoitzean 450 cc odol ateratzen da gutxi gorabehera. Ostean, elkarteko kideek mokadu bat ematen diete odol emaileei.

Emari hori egoitza nagusira eramaten da eta bertan azterketa bat egiten zaio.

Honetan gorabeheraren bat ikusiz gero, odol-emaileari horren berri eman eta beste azterketa bat egiten zaio emaitza ondo egiatzatzeko. Emaitza lehengo bera baldin bada, zer daukan azaldu eta eman behar dituen pausoak jakinarazten zaizkio. "Beraz, odol emaileen osasun kontrola handia da," aipatu du Joxek.

Gaixotasunik ez badago, emari hori izozkailuan sartzen da eta beharren arabera, ospitaleetara bidaltzen da.

Plasma eta plaketak

Baina odola emateaz gain, plasma eta plaketak ematea ere badago, "dena aprobeztatzen da. Hauek leuzemia edo beste gaixotasunak tratatzeko erabiltzen dira."

Plaketen bizi iraupena oso motza dela ere azaldu du: "Plaketek 5 egun irauten dute. Tarte horretan erabiltzen ez badituzu hil egiten dira. Plasma, aldiz, hozkailuan sartu eta izoztu daiteke".

Adierazi duenez, plasma eta plaketa emaria Sanchez Toca kaleko egoitzan egiten da bakarrik. "Makina bereziak dira eta ezin dira batetik bestera ibili".

Era berean, makinei esker aurrerapen handia egon dela aipatu digu, "lehen bi besoetatik egiten zen plaketan emaria, orain bakarretik. Medula behar dutenei ere berdin egiten zaie. Dagoeneko ez da beharrezkoa bizkarezurrean ziztada egitea. Makinak bereziki eginak daude horretarako eta prozesu guztia egiten dute".

Eta epe motzera plaketak jasotzeari utziko diotela ere aurreratu du, "plaketak behar dituztenek plasmarekin ere egin dezakete".

Egoitza berria

Odol emaileen elkarteko berriekin jarraikiz, Joxek elkarteak egoitza berri duela jakinarazi du. "Sanchez Tocako egoitza txikia geratu da. Lehen Zuatzu zegoen, baina hau ere saldu da. Orain, Antiguon Manuel Lekuona kalean lokal handi bat berritzen ari gara eta bertan zentralizatuko da guztia".

Bertan 20 makina jartzeko asmoa dagoela eta Donostiatik guztia zentralizatu nahi dela ere aurreratu du.

Gainera, "unibertsitateetatik gertu dago eta gazte jendea erakarri dezake" aipatu du.

Eskualdeko jaialdia

Hau guztiaz gain, urriaren 25ean, igandean, Oria Beheko eskualdeko biltzarra egingo da Urrietako Oianume jatetxean.

Honetara Tolosa, Ibarra, Andoain, Billabona edo Urrietako odol emaileak gerturatuko dira.

20, 40 eta 50 aldiz odola eman dutenei diploma banatuko zaie eta omenaldiren bat ere izango dela jakitera eman du Joxek.

"Honetara joateko autobusa jarriko da. Hurrengo asteetan jakitera emango dugu nola izena eman", aipatu du.

Hilabetero Osasun Zentroan

Era berean, Lasarte-Oriako odol emailek hilabetero duten hitzordua gogoratu du, hilabeteko azken astelehenean 17:30-20:30era, Osasun Zentroan gaude.

Eta "jendea behar da. Ea gazte jendea animatzen den. Odol ematea ez da gauza zaila".



Hitzaldiak, kalean mahaiak jartzea... ekintz augari egiten ditu elkarteak odol emaileak batzeko. Duela lau urteko kanpainako irudia.

LABURRAK.-

Ostadar SKTren areto-futboleko hiru talde federatuek lagunartekoak dituzte asteburuan

Ostadarrek hiru talde federatu edukiko ditu 2015-2016 denboraldian. 3. Nazionalean ariko den Ostadar Antonio Aroztegia, iaz Gipuzkoako 2. mailara igo zen Cecilia Fruta Denda Kebab



Lasarte Ostadar eta jubencil mailan ariko den Lasarte Kafe Bar Ostadar. Azken horiek triangular bat jokatuko dute asteburuan, Aldapeta Ikastola eta Zarautzen aurka. Marianistas ikastolan jokatuko dute, 10:00etan.

Cecilia Fruta Dendakoak Beran ariko dira Guretxokoren aurka ostiralean, 21:00etan. Azkenik, Antonio Aroztegiak Idiazabal taldearen aurka neurtuko ditu indarrak Idiazabalen bertan, larunbatean 16:00etan.

Ikastaro berri batzuk eskainiko ditu aurten Udal Kirol Zerbitzuak, Kiroldegian

Udal Kirol Zerbitzuak jarduera berri batzuk eskainiko ditu aurten Kiroldegian: umeentzat egokitutako Zunba, Zunba uretan, TRX eta oinarri ezegonkorra. TRX ikastaroa gorputzaren zati ezberdinak indartzeko asmoz gimnasioko sabaitik zintzilikatutako zinta batzuetara helduta ariketa ezberdinak egitean datza eta oinarri ezegonkorra jardueran gorputzaren oreka eta artikulazioen funtzionamendu egokia lantzen da, lan fisiko honen oinarria 'Core' edo gerri alde da. Jarduera berriak ezagutu eta probatzeko, Udal Kirol Zerbitzuak, doan, irailean zehar, hastapen saioak antolatu ditu. Ikastaro hauen egun eta ordu ez informazioa jasotzeko kiroldegian galdetu behar dute interesatuek.

LOKEren tenis eskolak hasi ditu entrenamenduak

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko tenis alorrak ere hasi ditu denboraldi berriko entrenamenduak. Irailaren 10ean ekin zioten lanari. Saileko arduradunek aipatu dutenez, lan-saioen ordutegiak lehengo urteko berberak izango dira. Dena dela, ohartarazi dute taldeak antolatzen ari direla oraindik, lehenengo bi asteetako zeregina hori izaten baita. Saileko arduradunekin harremanetan jarri nahi izanez gero, interesa dutenek kirol-guneko tenis pista-tara joan beharko dute arratsaldeko 18:30etik aurrera. Bestela, 647 15 61 46 telefono zenbakira ere hots egin dezakete. Azkenik, arduradunek gogorarazi dute 7 eta 9 urte bitarteko neska-mutilentzat irekita dagoela oraindik izena emateko epea.

KIROL AGENDA.-

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 18

Herriko areto-futbol txapelketa, lehenengo jardunaldia.

Michelingo kirol-gunea, 19:45ean

Txindoki - Txoko

Michelingo kirol-gunea, 20:45ean

Urdaneta HK - Indaux

Larunbata 19

Michelingo kirol-gunea, 9:15ean

Izkiña - Viña del Mar

Michelingo kirol-gunea, 10:15ean

Ilargi - TSST

Michelingo kirol-gunea, 11:15ean

Trumoi - Also

Michelingo kirol-gunea, 12:15ean

Reformas Lagunak - Kattagorri

FUTBOLA

Larunbata 19

Villabona, Arratzain zelaia, 10:00etan

Billabona KE - Ostadar SKT

Kadeteen Igo maila,

lehenengo jardunaldia.

Michelingo kirol-gunea, 15:30ean

Texas Lasartearra CF - Mutriku FT

Erregionalen lehen maila,

lehenengo jardunaldia.

Lesaka, Mastegi zelaia, 16:30ean

Beti Gazte KJKE - Ostadar SKT

Ohorezko Jubencil maila,

lehen jardunaldia.

Michelingo kirol-gunea, 17:15ean

Ostadar SKT - Touring KE

Ohorezko Erregional maila,

bigarren jardunaldia.

Igandea 20

Michelingo kirol-gunea, 10:30ean

Ostadar SKT - Usurbil FT

Jubencil lehen maila,

lehenengo jardunaldia.

Michelingo kirol-gunea, 13:00etan

Ostadar SKT - Vasconia CD

Kadeteen Ohorezko maila,

lehenengo jardunaldia.

ZALDI-LASTERKETAK.-

Amaitu da udako denboraldia

'Achtung' zaldiak irabazi zuen Donostia saria joan den igandean

Turf-zaleek lehengo igandean gozatu zuten Hipodromoko udako azken lasterketaz. 2.000 zale joan ziren Donostia sariaz eta beste hainbatzere gozatzera. Aurtengo sasoiak zortzi jardunaldi izan ditu, uztailean hasi eta irailera bitartean. 2016an Hipodromoak 100 urte beteko ditu.

TXINTXARRI

Azkenean lasterketez gozatu ahal izan badute ere, zale, antolatzailer eta lasterkariak tentsioz betetako hilabeteak pasa dituzte, uztaile hasierara arte kolokan egon baitzen denboraldia. Hamaika komeria eta liskarren ostean, ados jarri ziren azkenean eragile denak eta Donostiako Udalak ofizialki aurkeztu zuen uztailetik irailera bitarteko egutegia.

Donostia saria izan da aurtengo udako denboraldiko azken lasterketa Hipodromoan. Uztaile eta iraila bitartean zortzi jardunaldi jokatu dira, hainbat sari entzutetsu eta handiz osatuak egon direnak: Urrezko Kopa, Donostia saria, Gipuzkoako Foru Aldundia saria... Beste udara batez, turf-zale, turista, apustulari, jockey,



Zale ugari gerturatu dira Hipodromora udako denboraldian zehar.

prestazailer eta kazetarien bilgune izan da Hipodromoak.

Casino Kursaal sariak ireki zuen aurtengo udako denboraldia. Uztailearen 26an (igandea) jokatu zen, eta 'Ziga' izeneko zaldiak lortu zuen garaipena. 2.200 ikusle inguru joan ziren Hipodromora.

Bost jardunaldi abuztuan

Abuztua izan da denboraldiko hilabete garrantzitsuen; zortzi jardunaldietatik bost pasa den hilabetean jokatu zituzten. Hilaren 3koa izan zen lehenengoa. Gipuzkoako Foru Aldundia sariaz gozatu zuten Hipodromora hurbildu zirenek. 'Laffan' izeneko zaldiak irabazi zuen proba. Oscar Anaya herriko prestazaileraren 'Vallila' zaldia bigarren izan zen.

Denboraldiko egutegiko hitzordu nagusia abuztuaren

15ekoa izan zen: Urrezko Kopa. Hipikaren festa izan zela esan daiteke, 7.000 ikusle gerturatu baitziren lasterketa horretaz gozatzera. Frantzia aldera joan zen irabazlearen saria: 'Scalambra' eta 'Rooke' zaldiak izan ziren helmuga zeharkatzen lehenengoak. Aipatutako hiruez gain, beste hiru jardunaldi gehiago ere jokatu zituzten.

Donostia saria amaitzeko

Aurreko igandean amaitu zen udako denboraldia. Hipodromora gerturatu ziren 2.000 zale inguruk 'Achtung' zaldia- ren garaipenaz gozatu zuten.

Udako denboraldia amaitu ostean, ikusteke dago zaldilasterketak noiz itzuliko diren Hipodromora. Datorren urtea berezia izango da, 100 urte beteko baititu eraikin historiko horrek.

Igandea 20

Larraun, 10:00etan

Herriko lasterkari batzuk Plazaolako IX. Maratoi erdian ariko dira.

Usurbil, 10:30ean

Herritik hainbat korrikalari joango dira Usurbilera VIII. Baxurde

Krosean parte hartzera.

TRIATLOIA

Larunbata 19

Mutriku, 17:00etan

Herriko triatleta batzuk Mutrikuko sprint triatloian ariko dira.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 19

Donostia, 16:00etan

2014-2015 denboraldiko azken lasterketan hartuko dute parte

Buruntzazpi txirrindularitza

eskolako juniorrek. XXXVIII.

Larratxo Zirkuitua izango da.

Igandea 20

Lesaka, 9:00etan

Herriko hainbat mendi-bizikleta zale 45 kilometro luze dituen Lesakako

BTT ibilaldian hartuko dute parte.

PIRAGUISMOA

Larunbata 19

Erresuma Batua, Londres, Lee Valley

Maialen Chourraut herriko

piraguitak Munduko txapelketan

murgilduta jarraitzen du, K1 mailan.

Semifinalak jokatuko ditu goizean

eta sailkatuz gero, eguerdi aldera

finalak. Rio 2016ko Olinpiar

Jokoetara joateko lehian ari da.



Agenda

Gaur, Okendo plaza, 16:30ean



Bizikleta festa arratsalde osoan zehar

Bizikletaren eguna izango da gaur Okendon. Bizikleta festaren baitan, 16:30ean bizikleta martxa plazatik abiatuko da 6-11 urtekoentzat. Hauek ibilaldi laburra egingo dute eta jarraian, 17:00etan, 12 urtetik gorakoek egingo dute bide luzeagoa. Bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa eraman beharko du. Horretaz gain, joko ezberdinak izango dira plazan.

Hamaika lagunek talde artistikoa osatu dute eta zailtasun nabarmen batekin aurkituko dira: denbora epe laburrean prestatu beharko dute jendaurreko emanaldia. Antzezle bakoitza bere iaioasunetik ariko da eta taldekideen arteko hartu emana eta elkar ulermena funtsezkoa izango da ikuskizuna garatu ahal izateko, lortuko al dute? Sarre-
ra 5 euro. Emanaldia Kilometroak-en alde.



SUTEGI

Larunbata 20:00etan

'Obarixo biaz' antzezlanaz gozatu ahal izango da. Emakumezkoak dira taldeko antzezleak: 20 eta 60 urte arteko ondarrutarrak. Ana Elordi aktoreak zuzentzen du 2007. urtetik Traman & Brix taldea. Sarrera 5 euro.

Lasarte-Oria

Mugikortasun Astea

OKENDO PLAZA

Gaur, Ostirala

16:30ean, Bigarren eskuko bizikleten azoka. Aurretik herritarrek saldu edo trukatu nahi dituzten bizikletak, patinak edota kaskoak bezalako osagarriak eraman beharko dituzte plazara eta azoka bukatzean ere diruaren bila edo saldu ez bada, materiala jasotzea pasa beharko da, 19:30etik 20:00etara. Trukearen aukeraren alde egitekotan, antolatzailerak ez dira arduratuko hau burutzeaz beraz, bertan egon beharko dute jabeek. Bizikleta gares-

tiak edota teknikoak ere ez dira hartuko, gehienez 300 eurokoak izango dira.

OKENDO PLAZA

Astelehena, 18:30

'Hirian bizikleta erabiltzeari buruzko ikastaroa'. 16 urtetik gorakoek zuzenduta. Plaza mugatuak dira eta aurrez izena eman beharko da 943 670 249 zenbakira deituta.

Erakusketa

MERCERO ARETOA

Irailaren 24tik 26ra

Gureak erakundearen 40. urteurrena dela eta, 'Etorri eta bizi esperientzien lantegia. Jokoen bidez desgaitasuna

ulertzen' erakusketa izango da ikusgai. Sarrera doan.

Azoka

HERRIKO DENDAK

Irailaren 26an

Aterpea elkarteko dendek stock azoka egingo dute egun osoan zehar. Eskaintzez gain, hainbat ekintza antolatu dituzte herriko merkataritza aktibatze helburuarekin.

Usurbil

7.Topa Eszenika

SUTEGI

Ostirala 19:30ean

'Jendartea Bidaide' antzezpena.

Santueneako jaiak

SANTUENEA AUZOA

Gaur, Ostirala

17:00etan Txupinazoa txosna aurrean eta txokolatada Tragoxkan. Ondoren, globo gerra egingo da.

18:30ean Buruhandiak eta Txaranga kalez kale arituko da.

19:00etan Sardina jana txosna aurrean.

23:00etan Kontzertuak Odolaren Mintzoa, Izeberg eta Erokomeri erromeria.

Herritarren txokoa

Biyak Bat elkarteko abesbatza zuzendari bila

Biyak Bat erretiratuen elkarteko abesbatzak zuzendaria behar du. Elkarteko kideek azaldu digutenez, urtariletik aurrera hasiko litzateke lanean zuzendari berria. Interesa duten pertsonak elkartearekin harremanetan jarri behar dira 943 36 39 64 zenbakian, biyakbat@gmail.com helbide elektronikoan edo egoitzara hurbilduz, Kale Nagusia 40 baxua, astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.


Intza K.Eren mus txapelketa

Intza K.E-ren 42. mus txapelketan izena emateko aukera dago zabalik. Honakoa irailaren 25ean itxi egingo da. Irailaren 28an hasiko da txapelketa eta izena ematearekin batera, 30 euro ordainduko ditu bikote bakoitzak eta horrela finalaren eguneko afaria ordainduko da. Baldintza bezala, bikote bakoitzean

Intzako bazkide batek egon beharko du.

Sarean

Googlek euskarazko ahots - testu bihurtza sarreratu du



Chrome nabigatzailean GoogleDocseko dokumentua sortzea da lehenengo pausua. Menuan Fitxategia sakatuta, hizkuntza aukera agertzen da eta bertan euskara hautatu daiteke.

Jarraian, menuan agertzen den Tresnak atalean, ahots bidezko idazkera aukeratu eta mikro baten irudia azalduko da. Behin hau sakatuta gure testua diktatzen has gaitzke.

Hainbat blogetan jaso denez, mantso diktatu beharra dago hitzak ondo hartzeko. Horretaz gain, ez da beharrezkoa Chrome nabigatzailean Google Docs euskarazko interfazearekin edukitzea.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

Oihan Agirretxe Brigadista

“Positiboki aldatu nau bidaiak”

21 urteko herritarra brigadista moduan egon da abuztuan Palestinan

Oihan Agirretxe herritarrek uda ez zuen urtero bezala pasa nahi eta Palestinara brigadista modura joatea erabaki zuen. Esperientziak pertsonalki aldatu du eta Palestinak bizi duen egoeraz beste ikuspegi bat eman dio. Hango herritarrek bizi duten jazarpena gelditzeko nazioarteko laguntza beharrezkoa ikusten du.

MAIDER AZURMENDI

Hiru asteko egonaldia izan arren, bizitza aldatzen duen esperientzia horietako bat izan da Palestinara egindako bidaia Oihan Agirretxerentzat. Askapenak antolatutako brigadan bost lagun abiatu ziren abuztuaren bian Euskal Herrietik. Guztientzat esperientzia aberasgarria bezain intensoa izan da.

Zergatik Palestina?

Zerbait egin nahi nuen abuztuan ohiko udara ez izateko. Aita egona zen Palestinan baita lagun batzuk ere eta beti izan dut kuriositatea bertako errealitatea ezagutzeko.

Nola prestatu zenuen bidaia?

Askapenaren brigaden artean aukeratu nuen Palestina eta bi formazio saio egin genituen. Alberto Pradillaren “El judío errado” liburua irakurri nuen ere joan aurretik eta horrek lagundu zidan bertako egoera, batez ere alderdi erlijiosoari dagokiona, hobeto ulertzeko.

Askapenako kideek arazoak izan zituzten Saharan. Zuek arazorik izan al zenuten?

Gure kasuan ez. Hala ere, ia beti, palestinar herriarekiko elkartasun mugimenduetako kideek izaten dituzte han arazoak. Dirudienez gu ondo kamuflatuta joan ginen.

Israelentzat brigadista berez ez da arazoa. Beraiek jakin, nahi dutena da bertan zaudela, zeinekin mugitzen zaren. Europarrak gaizki tratatzea ez zaio komeni Israeli.

Nolakoak izan ziren lehenengo egunak?

Tel Aviv-era iritsi eta zuzenean Jerusalem okupatura joan ginen. Bertan egun bat pasa genuen, ohiko leku ‘turistikoak’ ikusten. Niretzako erlijioaren inguruan dauden ohiturak ikustea deigarria izan zen.

Juduen aldea guztiz “europarra” da. Alde palestinarren arkitektura arabiarra da nagusi eta judua oso mendealdekoa da, multinazionalen dendak aurki daitezke. Estatu europarra nahi dute izan.

Gure kontaktuarekin elkartu ginen Bet Lehem-en.

Errefuxiatu gune batean izan zineten...

Bai, Aida errefuxiatu gunean egon ginen egun batzuk. 1948an Israelgo estatu demokratiko judua osatu zenean, bertan zeuden palestinarrek, ez juduak, euren etxetatik bota zituzten. Momentu horretan okupatuta ez zeuden lurretara mugitu ziren errefuxiatu gune hauek sortuz.

Sarreran giltza erraldoi bat dago eta honen esanahia da, guztiak okupazioa gertatu zenean, euren etxeen giltzak eraman zituztela noizbait bueltatzeko itxaropenarekin. Erbeste hain luzea izango zela ez zuten espero eta 1.000 lagunetik egungo 6.000ra pasa dira.

Nolakoa da han bizitza?

Lurralde mugatuak dira eta jendetza biltzen da leku oso txikian. Israelen esku dago ura adibidez eta hilabetean behin ematen diete. Langabezia handia dago, zerbitzu edo denda txikiak daude eta horietan egiten dute lan ahal dutenek.

Guk bisitak egiten genituen, euren egoera ezagutzeko helburuarekin. Gure elkarrizketa horietan, saiatu ginen jende desberdinarekin egoten ikuspuntu anitzak jasotzeko.

Bizi duten etengabeko jazarpena izugarria da. Adibidez ikusi genituen ume batzuk harriak harrsira botatzen eta militarrek gas negar-eragilea bota zieten. Umeak besterik ez ziren baina han berdin dio... Gau batean sei gazte atxilotuta eraman zituzten...

Ebronon egoera nolakoa da?

Aidatik Ebronera joan ginen. Elkarren ondoan bizi dira han israelarrak eta palestinarrek. Goiko etxeetan kolonoak daude eta behean, alde zaharrean, palestinarrek. Bertan 128 check point daude, une oro zaude kontrolatuta eta militarrek nahi dutena egiten dute. Hirian batzuetan autoritatea polizia palestinarrek du eta beste batzuetan, Israelgo armadak. Palestinarrek jazarpen bikoitza pairatzen dutela esango nuke, palestinar poliziak atxilotzen ditu harriak botatzen dituzten gazteak eta israeldar armadak ere bai...

Atxilotetak behin eta berri



Oihan eskubian, brigadako beste kideekin batera.

aipatzen dituzu...

Bai han atxilotetak oso ohikoak dira... Familia batekin egon ginen Ebronon pasa genituen egunetan. Jazarpen konstantean bizi dira, atxilotetak, torturak, hilketak... jazarpena jasanezina da. Kolonoek nahi dutena egiten dute, kontutan izan behar da herrialde ezberdinetatik eramaten dituzten juduak direla, etxebizitza ematen zaie doktrinatzeko kulturala... fanatiko erlijiosoak dira. “Hau jainkoak guri emandako lurra da eta gurea da” diete.

Etxe baten okupazioa nola gauzatzen zuten ikusi genuen. Pixkanaka etxeak hartuz, lurra bereganatzen doaz. Etxetik kanpo daudela sartu eta bueltan lanetik, erosketetatik... etxea hartu dietela aurkitzen dute.

Eragile eta lider politikoekin egoteko aukera izan zenuten?

Bai, Ramallah-ra joan ginen. Hau da Palestinako hiriburu administratiboa. Elkarte bat badago errepresioa jasaten dutenei laguntza psikologikoa ematen diena eta hauek kontaktzen zuten askotan torturatuta izan eta gero denbora luzera azaleratzen direla arazo psikologikoak. Ez dira tratatzen, gaintzen, eta egun gizartearen arazo bihurtu dira.

Bi familia bisitatu genituen. 20 urteko semea nola manifestazio batean atera eta bertan akabatu zuen frankotiratzaileak kontaktu zituzten. Gogorra izan zen. Aktiboa zen politikoki gaztea eta jakin bazekiten gerta zitekeela. Beste familiaren kasuan, gazteak ez zuen ezertan parte hartzen, errefuxiatu gunean sartu ziren militarrek tiro bat bota eta bera jo. Neska lagunak kriston indarra zuen, unibertsitatean ikasten hasi eta herrialdearen egoera hobetzeko gizarte formatu bat izatea garrantzitsua zela esaten zuen

behin eta berriro. Aurrera egiteko gogoz, ilusioarekin eta itxaropentsu zegoen.

Presoen egoera ere ezagutu zenuten...

Palestinarrentzat atxilotzeko adin minimoa 12 urte da eta israeldarrentzat 18. 300etik gora ume daude egun kartzelan eta ohikoenak atxiloteta administratiboak dira. Inkomunikazio egoera gutxienez sei hilabetekoa da. Sei hilabete jakin gabe zergatik atxilotu zaituzten, abokaturik gabe, bisita gabe...

Kotxean sartzen zaituzten momentutik hasten dira torturak. Umeekin tortura fisikoak eta helduekin psikologikoak. Palestinan 6.000 preso politiko daude. Egoerak muturrekoak dira espetxeetan, gehienak israeldar espetxetan daude.

Orokorrean, ikusten al dute soluziorik?

Han jende desberdinarekin hitz egin genuen gaiak. Hiru egoera eman daitezkeela uste dute. Batetik orain bezala jarraitu, kolonizazioak terenoa jatea pixkanaka.

Bestetik, bi estatuen teoria dago, estatu palestinarra eta israeldarra eratzea. 1993an sinatutako Osloko hitzarmenean zehaztutakoa betetzea litzateke. Honetan marra berdea finkatu zen orduan baina Israelen pixkanaka hau gaintzen joan da. Hau onartzekotan, orain arte okupatu dizkieten lur guztiak Israelen esku geratuko liriateke, Gaza eta Zisjordaniara mugatuko litzateke estatu palestinarra. Horrela izanda, lehengai guztiak Israelen lurretan geratuko liriateke erabateko menpekotasuna sortuz.

Azkenik, palestinar gehienek defendatzen duten estatu bakarra legoke. Bakean elkarrekin bizitzea. Bakea eta justizia nahi dute eta elkarbizitzaren alde daude.

Zein da egoera politikoa?

Bi alderdi nagusi daude Palestinan, Al-Fatah, nagusi da Zisjordanian eta Hamas, Gazan. Bien arteko egoera liskartsua da. Batu beharrean Palestinaren egoera hobetzeko, bakoitzak bere oinarriak defendatzen jarraitzen du elkarlanerako inolako jarrerarik agertu gabe.

Eragile batek esan zigun denon artean zerbait lortu ahal izateko, partido berri bat sortu beharko zela. Ohiko bi alderdi hauen higadura gaintu eta irtenbide amankomun baten alde egingo lukeena.

Zure ustez zein izan daiteke irtenbidea?

Ez dut irtenbiderik ikusten. Lehenengo bi intifadek nazioartean gatazka ezagutzera emateko balio zuten. Horretaz gain, palestinarrek atxilotu, akabatu eta errepresioa handitzeko. Israel da munduko estatu militarizatuenetako bat.

Egun alderdiek ez dute jenderik. Intifaden garaian herri kontzientzia zegoen, herri izatera defendatzeko grina baina egun, kapitalismoaren ideologia individualista sartu da.

Umeak edukitzea, ugartitzea da geratzen zaiena. Gehiago dira juduak baino.

Zein sentsazioarekin etorri zara?

Subidoiarekin. Egoera txar horretan nola bizirik irauten duten eta aurrera nola ateratzen diren izugarria da. Erakusten duten duintasuna...

Argi dago, hemen ditugun arazoak ez direla ezer. Positiboki aldatu nau bidaiak.

Hemen zer egin daiteke?

Palestinaren gatazka konponduko bada, laguntza internazionalarengatik izango da. Israelen ekoizten dituen produktuak boikoteatzea da norberak etxean egin dezakeena. Boikotak ahultzen ditu ekonomikoki zein moralki.

Bestalde, han zer gertatzen den kontatzea. Gatazka erlijioso bezala saltzen da eta horrela ez da. Bertakoa genozidio, muturreko kolonizazio edo apartheid bat bezala definituko nuke.

Hara joatea animatzen dut jendea. Palestinarrek hori nahi dute bertatik ikusi eta bueltan gure herrialdetan kontatzea.

Guk dokumental bat egingo dugu eta ondoren, hitzaldi eta emanaldiak herriz-herriz antolatuz zabalduko dugu.